

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Nafarroako Gobernuak herritarrak animatu nahi ditu Eguberrietako erosketak saltoki txikietan egin ditzaten

"Denda txikiak, pertsona handiak" izeneko publizitate-kanpaina abiaraziko du hurbileko denden balioak azpimarratzeko

Jueves, 19 de noviembre de 2015

"Denda txikiak, pertsona handiak" – "Pequeño comercio, grandes personas" da Nafarroako Gobernuak urte amaierara arte aktibatuko duen publizitate-kanpainaren goiburua saltoki txikian Eguberrietako erosketak suspertze aldera; izan ere, sektore horrek "auzoak eta herriak antolatzen ditu", kalitatezko enplegua sortzen eta zerbitzu bereizgarri bat eskaintzen, "hurbiltasuna".



Ayerdi lehendakariordea, kanpainan parte hartzen duen merkataritza-talde batekin.

Landa Garapeneko lehendakariorde Manu Ayerdik, Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusi Maitena Ezkutarik eta Iruñeko Walden liburu-dendako Daniel Rosinok balio horiek nabarmendu dituzte sustapen-jarduera hori aurkezteko prentsaurrekoan; Altsasu, Tafalla eta Iruñeko 22 saltokiren partaidetza eta laguntza izan dute bertan.

Kanpaina horren bidez, Foru Komunitateko 55 zinema-aretoetan eta eskualdeko telebistetan (Navarra TV eta Nafartelebista) 20 segundoko spot bat emitituko da urte amaierara arte. Foru Komunitateko irrati-etxe nagusietan ere irratiko kuñak sartuko dira (Ser, Onda Cero, Cope, Euskalerria Irratia eta Xorroxin Irratia); iragarkiak Diario de Navarra, Diario de Noticias, Berria eta Gara egunkarietan; bai eta tokiko aldizkarietan ere. Materialak sare sozialetan ere biral bihurtuko dira. 70.000 euro inguruko aurrekontua du.

Auzoko dendak eta tokiko produktuak

Pieza nagusia 20
segundoko spot bat da, eta
bertan hainbat sektoretako
Altsasu eta Tafallako

merkatariak esaldi bat osatzen doaz hiri eta herrien eginkizun sozial garrantzitsua betetzen duten negozio batzuen indarguneei buruz, denda txikiek merkataritza handi bat osatzen duten ideia eskainiz.

Spot-ean protagonista izanik edo laguntzaile modura kanpainaren parte hartutako 22 saltokiak honako hauek dira:

Altsasutik, Asensio Moda, La Cigüeña, Arkatz liburu-denda, Iulene mertzeria, Sakana optika, J.A. Galarza harategia, Pinpilinpausa oinetako-denda, Izara errezelak, Tipitapa, María Luisa jantzigintza eta Sebastián harategia. Tafallatik, Baztán ultramarinoak, Ópalo zapatak, Acacia lore-denda, Decocina, Tafalla sarrailagintza, Demetrio Delikatessen, Idazti liburu-denda, Rekarte Boutique, Música Informatika eta Rosino bitxi-denda, bai eta Iruñeko Walden liburu-denda ere.

Aipatutako bi udalerrri horietako merkatar-elkarteek ere lagundu dute. Ekitaldiaren amaieran, Ayerdi kontseilariak beren partaidetza eskertu du "84 Charing Cross Road" liburuaren ale bat entregatuz.

Zuzendari nagusiak nafar guztiei eskatu die beren auzoko edo herriko saltoki eta dendak gogoan izan ditzatela datozen egunotan egingo dituzten erosketetan.

"Aukera ezin aproposagoak dira, adibidez, jasoko duten arretaren kalitate eta pertsonalizazioari dagokionez, gero eta zabalagoa nahiz lehiakorragoa den eskaintza baten barnean", adierazi du; jarraian, opariak eta elikadurako produktuak erostean buruan izan dezaten eskatu du. "Balora dezagun produktu horren trazabilitatea ezagutzeak ematen duen konfiantza, etxe alboan egindakoa dena; eta sarritan, gure Foru Komunitatetik kanpo datozen beste eskaintza batzuk baino kalitate nahiz prezio hobean", azpimarratu du.

Ezkutarik hurbileko saltokiaren giza kalitatea goraiatu du, "saltoki txiki batek baino eskaini dezakeen zerbitzu; hala, bezeroekin ia familiarra den harreman bat ezartzen da".

22.000 bat enplegu

Bestalde, Ayerdi lehendakariordeak hurbileko saltokiak motor ekonomiko, kalitatezko enplegu-sortzaile eta gure auzo nahi herrien ardatz antolatzaile modura duen garrantzia azpimarratu du.

Hala, helarazi duenez, txikizkako merkataritza BPGd-aren % 3 da (2013) eta enpresa guztien % 15 (6.500 inguru, eta 8.000 merkataritza-lokal okupatzen dute). Mikroenpresak dira gehienak (1 langile eta 10 artean), oso atomizatuta dagoen sektorea. 22.000 bat pertsonari ematen die lana, % 65, emakumeak. Enpleguaren heren bat baino gehiago autonomoei dagokie.

Gogora ekarri duenez, krisiak eragin txarra izan du enplegu eta kontsumoan; hala, fakturazioa % 14 jaitsi da 2008 eta 2015 artean. Nolanahi ere, 2013ko bigarren erditik aurrera, sektoreko fakturazioa eta enplegua hobetu egin dela ikusi da, Nafarroako ekonomiaren susperraldiari lotuta, eta 2015eko lehen erdian indarra hartu du. Horrenbestez, kontsumoak % 1,2 egin zuen gora 2014an. Eta sektoreko fakturazioa % 2 igo zen 2015eko ekainean 2013ko ekainarekin alderatuz.

Ayerdik iragarri duenez, Garapen Ekonomikorako lehendakariordetza plan estrategiko berri bat lantzen ari da legealdi honetarako merkataritza-esparruan; sektoreko arazo nagusiak aztertuko ditu, eta sektore horretan Nafarroako Gobernuak egin beharreko jarduera guztiak era koordinatuan ezartzeko markoa izango da.

Horri buruz, Nafarroako Gobernuak teknologia berriak, kalitatea, kontsumoko arbitraje batzordeari



Kanpainaren irudia.

atxikitzea sustatu nahi ditu, hiriguneak biziberritzeko planak eta merkataritza garatzea, bai eta elkartegintza indartzea ere. Gainera, departamentuen arteko koordinazio bat sortuko da ekintzaileen proiektuak sustatzeko, lehendakariorde ekonomikoak azaldu duenez.